

XagunArtea

2008ko urtarrilaren 21a

Xagun aldizkaria

25. alea

Diru piloa eman dugu aurtengo Gabonetan ere



Atzo zela ematen du, baina ia hilabete joan zaigu Gabon egunetik. Egun ederra izan zen Zerain aldean, eta urtero bezala, herritarren eskuzabaltasuna agerian geratu zen. Guztira 2.300 euro baino gehiago bildu zituzten eskean ibili zirenek. Alde batetik, goizez bakarrik aritu ziren eskolako haur eta gurasoek 845 euro batu zituzten eta ezin hobeto etorriko zaie urteko beharretarako. Bestetik, goizez nahiz arratsaldez herriko etxe guztiak pasa zituen taldeak 1.500 euro jaso zituen. Diru horren zatitxo batekin merienda ederra egin zuten haur eta gaztetxoek urtarrilaren hasieran. Baina horrez gain, erdia Kultur Etxeko beharretarako izango da eta beste erdia katekesirako. Eskerrik asko guztioi!



Santa Ageda bezpera

Otsailaren 4a, Santa Ageda bezpera dugu. Usadio zaharrari jarraituz, aurtengo ere etxez etxe kantuan eta eskean ibiliko da talde bat arratsalde-iluntze partean. Baina oraindik ez da irteera ordurik jarri, laneguna izanik, ikusi egin beharko baita zenbat lagun animatzen den Hori bai, aurtengo herriko zaharrenei ikasitako kanta batzuk berreskuratzeko dira. Entsaioa, otsailaren 1en izango da 20:30etan.

Sahararen aldeko euskal karabana

Urtarrilaren 11tik 31ra Saharara bidaltzeko elikagai bilketaren kanpaina egingo da. Lau produktu konkretu bilduko dira: ATUN LATAK, AZUKREA, LENTEJAK, KONPRESAK. Hil amaiera arte, udaletxean, Mandio dendan, nahiz herri-eskolan utzi ahalko dira produktu horiek. Sahararrek denon laguntza behar dute.



San Blas eguna

Otsailaren 3a, igandea, San Blas eguna dugu. Eta ohiturari jarraituz, meza Burgomendiko San Blas ermitan izango da goizeko 11etan. Kandela eta janari bedeinkapena ere egingo dira urteroko moduan. Ondoren, hala nahi dutenek, hamaiketakoa egin ahalko dute Liztormendi sozidadean, Kultur Elkartearen eskutik.

Eskolako haurren inauteri jaia



Inauteriak oso goiz iritsi dira aurten, baina hala ere, eskolako haurrek ezin hobeto ospatuko dituzte, otsailaren 4an, astelehena. Aurten, ordea, inauteri astelehena eta Santa Ageda bezpera egun berean direnez, urteroko

antzerkiaren ordez, koplak eta abestiak eskainiko dizkiete gaztetxo, guraso eta herritarrei, arratsaldeko 4etan hasita. Ondoren, guraso elkar-teak merienda prestatuko du guztientzat.

Kupeletako txotxa irekita, hasi da sagardotegi denboraldia



Otatzak, hilaren 18an eta Oihartek hurrengo egunean, ireki dute aurten-go sagardo-denboraldia. Sagardo ona edateko eta txuleta ederrak jateko aukera bada, beraz, aurrerantzean.

Otatzan aizkolarien omenaldia
Urtarrilaren 27an, igande eguerdian,



Otatzak omenaldia egingo die Aizkorpe bailarako 6 aizkolari beterranori. Omenaldian inguruko 8 aizkolari, bertsolari eta trikitilariak izango dira eguerdiko 13etatik aurrera. Ondoren bazkaria izango da sagardotegian bertan.

2007ko zentsoa

2007 urtearen hasieran 250 biztanle ginen Zerainen, udal erroldaren arabera eta urte bereko bukaeran 244 ginen. Urtean zehar 6 alta izan ziren: hauek 1 jaiotza, eta bajak 12; hauek 4 heriotzak. Jaio Itsaso Lazkanoiturburu Alustiza egin da. Hil berriz, Jose Mari Intxausti Arrondo, Anakleta Berasategi Ayerbe, Juan Alustiza Arrondo, Izaskun Etxaluze Zubeldia.

Goierri kolore

Otsailaren 5etik 10era, Goiekik antolatutako "Goierri kolore" erakusketa egongo da Maisunen. Kultur aniztasunari buruzko erakusketa iluntzetan egongo da irekita, eta gainontzean, Mandion giltza eska daiteke.

Toberaren bideoa

Tobera musika eskolaren urteurrena dela-eta, beste ekintza askoren artean, bideo bat ere prestatu dute. Urtarrilaren 30ean, iluntzeko 7etan aurkeztuko dute Zerainen.

Aizkora apustua

Otsailaren 2an, larunbata, sekulako aizkora apustua izango da Zeraingo frontoian. Xabier Dorronsoro aguazilak, behealdeko bi gazteri 10 kanardiko zeinek lehenago moztu, apustua jokatuko die.



Tute txapelketa

Otsailaren 16an, larunbata, jokatuko da Liztormendi elkartekeko urteroko tute txapelketa.

Mandio

Oraingoan erotu egin al zaigu Mikel? Nola esango digu, ba, *Mandio* hitza galtzen ari denik Zerainen? Ba ote da, gaur egun, hori baino maizago erabiltzen dugun hitzik? Ez genuen besterik behar: aste-bukaera etorri orduko hor da bera ere, baso-erdi ardo eskatuz, *Ostatun* batean eta *Mandion* bestean. Eta orain begiraiozu: hitz hori galtzen ari omen da Zerainen. Esatea ere!

Ez zaio arrazoirik falta, halako harridura agertzen duenari. Plaza ondoko tabernari, eta taberna gaineko dendari, *Mandio* esaten diogu guztiok. Horrek ez du esan nahi, ordea, gaurko *Mandio* horretan inolako *mandiorik* dagoenik. Garai batean *mandioa* zegoen hor, eta horregatik segitzen dugu leku horri *Mandio* esaten. Baina *mandiorik* ez dago hor, gaur egun. Ganbaratxo aurreko etxeari ere *Xerootei* esaten diogu: *Serorategi* alegia (casa o mansión de seroras). *Xerootein* ez da ordea serorarik bizi, aspaldi honetan. Beste horrenbeste gertatzen da *Erregesoro* famatuarekin. Horko soroak galdu ziren betiko: bai erregearenak eta bai gainerakoak. Plaza aurreko *Jauregik* ere *casa o mansión del señor* (jaun+egi) esan nahi zuen hasiera batean. Urteak (agian mendeak) dira ordea, plaza aurreko *Jauregi* horretan herriko *jauna* bizi ez dela. Izen propio hutsak dira, gaur egun, *Xerootei*, *Erregesoro*, *Jauregi* eta *Mandio* horiek. Garai bateko forma, jatorrizko itxura edo azala, hainbatean gorde dute. Mamia edo esanahia aspaldi galdu zuten, ordea.

Gatozen gurera: zer esan nahi zuen, garai batean, *mandio* hitzak? Taberna seguru ezetz. Turismo-bulegoa edo denda, hori ere ez. Zer, beraz? Ez da erraza, galdera horri zuzen erantzuten. Erantzun errazena, argazkian daukazuen hori da: baserriko ganbara aldera igotzeko ranpa eta goiko ganbara-partea. Hori izan da askorentzat, Zerainen eta Zeraindik kanpora, *mandioa*. Baserriaren zati bati esan izan zaio *mandioa*. Belar ondua, garia, artoa eta abar lehor gordetzeko gurdiak, idipare eta guzti, sartzeko goi-partea: hori izan da, askorentzat, *mandioa*.

Edade batetik aurrera doazen zeraindar gehienentzat, orain ere, *mandioa* hori da. Hiztegiak dioen bezala, "llaman en muchos pueblos al pasadizo o puente que se establece en algunos caseríos para el paso de los carros al desván". Beste azalpen hauek ere hiztegitik jasoak dira: "granero, desván, sala de los caseríos destinada a depósito de heno, granos, etc...Arriba del todo se encuentra el desván (*mandioa*) a donde entra el carro de bueyes".

Alemanian bada inguru bat, *Schwarzwald* izenekoa. Gaztelaniaz *Selva Negra* esaten zaio; euskaraz *Oihanbeltz* edo *Oiharbeltz* esango genioke. Badu *Oiharbeltz* horrek Goierri honen antzik, mendiz eta baserriz. Hango baserriak ere *mandiodunak* dira: haietan ere bada gurdia, idi eta guzti, ganbarara zuzenean sartzeko pasadizorik. Haiek ere badute *mandiorik*, ganbara-parean. Aldapan eginak dira baserriak, eta etxearen goi-aldeetik dute *mandiorako* sarrera.

Mandioa eta ganbara, antzeko gauza dirudite goiko azalpen horietan. Beti ez da horrela, ordea. Zenbait lekutan, *mandioa* ez dago ganbaran. Leku batzuetan, *mandioak* "el interior de la casa donde se pone la hierba" esan nahi du soil-soilik. Ez dauka ganbaran egon beharrik: beheago ere egon liteke. Beste zenbaitetan, esanahi bereziagoa zuen *mandio* hitzak. Badirudi egurrezko edo zurezko taula-egitura, *tablado* moduko zura-jea, esan nahi zuela *mandio* horrek. Tolarean, adibidez, "llaman **mandio** a cierta clase de maderos que ponen en los lagares" eta "*barandiyua* llaman a los cerrados o paredes de los lados, que son de madera y forman cajón o local donde se pone la manzana". Elizetan ere bazen *mandiorik*: sagra-rioko atea egiteko *mandioak*, esate baterako. Itsasontzi zaharretan ere bai: "redel del navío, sobrequilla: killa gaineko *mandio* luzea". Badu *mandio* hitzak hori baino apartagoko esanahirik ere. Nafarroan "seto, valla



Mantxolako mandioa

hecha con ramas gruesas". Horietan guztietan, bi gauza dira argi: batetik zurezkoa, egurrezkoa dela *mandioa*; bestetik itxitura adierazten duela, zerbait gordetzeko lekua. Zurezko itxitura izana da hortaz, baserriko ganbaraz gainera, *mandioa*. Esanahi bietatik zein ote da zaharrena? Ez dakit. Hitz latinetik datorrela irakurria dut inoiz. Hala izatera, erromatarren artean hitz horren jatorrizko formak zer esan nahi zuen ikusi beharko genuke. Bada gure irakurleen artean, oso oker ez banago, gauza hauetan nik baino ondotoz gehiago dakienik. Halakori utziko diogu beraz, gaizki ez baderitzo, kontu hori argitzeko ardura. Bihotzez eskertuko diogu laguntza, batek baino gehiagok.

Azken kontutxoa. Forma bat baino gehiago du *mandio* horrek: *bandio*, *barandio*, *maindio*, *marandio*, *mandigo*. Larraondoko Xantik *maldio* esaten dio gehienetan: ez dut uste bakarra denik herrian, horrela esaten duena. *Mandio* edo *maldio*, gauza bat dago argi: garai bateko esanahia galtzen ari da hitza. Ez dago zertan harritu. Idi-pare askorik ez da gaur egun ikusten bazterretan, eta belar ondua gordetzeko badago sistema errazagorik, belarra gurdiz ganbara aldera sartzea baino. Tolareak ere zeharo mekanizatu dira, eta harrituko nintzateke tolareko bazter-taulei orain ere *mandioak* esaten zaiela jakiteaz. Nagoen ordea isilik: Joxe Antoniok eta Juantxok dute horretan hitza.

Mikel Zalvide



Xagu-txoko



Babesetik

ABENDUE	al	ar	az	og	or	lr	lg
						1	2
Euria (l/m)	GUZTIRA: 93,5l					4,5	0
C° altuena	ALTUENA: 17°					13	8
C° baxuena	BAXUENA: -5°					2	3
	3	4	5	6	7	8	9
Euria (l/m)	9	6	0	0	8	3	12
C° altuena	13	12	16	17	16	11	13
C° baxuena	6	10	2	8	5	7	7
	10	11	12	13	14	15	16
Euria (l/m)	33	10	0	0	0	0	0
C° altuena	16	10	9	8	6	5	5
C° baxuena	6	5	-2	-5	-4	-4	-2
	17	18	19	20	21	22	23
Euria (l/m)	1,5	2	0	0	0	0,25	0
C° altuena	9	5	8	12	10	12	13
C° baxuena	-5	2	6	7	8	8	4
	24	25	26	27	28	29	30
Euria (l/m)	0	0	0,5	0	0	0,25	3,5
C° altuena	13	11	13	11	8	8	6
C° baxuena	3	-1	6	-3	-3	-2	5
	31						
Euria (l/m)	0						
C° altuena	10						
C° baxuena	-1						

Abendua hotza

31 egunetatik 10 egunetan zeropetik izan dugu termometroa abenduan. Hirugarren eta azkeneko asteetan, ia egunero izoztu ditu bazterrak, dena zuri-zuri eta gogor-gogor utzita. Hala ere, elurra nahiko urruti ikusi dugu eta bota duena, euritan egin du.

Urteko prezipitazioei erreparatu-ta, 2006ak baino dezentez euri gehiago utzi digu 2007ak, nahiz, gutxigatik ez den 1400 litroko mugara iritsi. Hala ere, azken 8 urteetako antzeko mailan geratu dira 2007ko euririk.



	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Urtarrila	133	36	231,5	45	283	223,5	121,5	91	139
Otsaila	201	133,5	89,5	170,25	152	145	164,5	89	152,5
Martxoa	171,5	110	154,75	40,5	69,25	120,25	96	193,25	320
Apirila	131,75	159,25	122,5	100	79	132	236,5	74	130
Maiatza	110,75	62	43,5	171	116	82	86,5	31	114
Ekaina	47,75	57,5	35	84,75	55	22,25	15,25	90,75	52
Uztaila	126,25	108	116,5	61,25	15,75	44,5	9	29	36
Abuztua	50,75	71	17,25	126,25	37,5	60,5	87	32,25	120,75
Iraila	89	29	45,5	42	76,5	133,5	68	130	66,5
Urria	34	259	56,5	120	207	83	98,5	99	123,5
Azaroa	189	244,5	194,75	178,75	180,5	175,5	312	117,5	49,25
Abendua	242	145,75	37	314,5	211	223	174,25	97,75	93,5
	1526,75	1415,5	1144,25	1454,25	1482,5	1445	1469	1074,5	1397

Imprimagailuen toner eta kartutxo bilketa

Inprimagailuetan erabiltzen diren toner eta tinta kartutxoak ere birzikla daitezke. Horretarako, aurrerantzean, udaletxean, edukiontzi berezi bat egongo da. Erabil ezazu!



Bola-plastiko bilketa

Silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa, hilaren 3. asteazkenean egiten da. Datozen bilketak: otsailaren 20an, martxoaren 20an, apirilaren 17an. Ohiko lekuetan bilduko dituzte eta aurreko egunetan atera behar dira.